

Euskararen Kontseilu Sektoriala

-Ohiko Bilkura-

Data eta lekua	2024ko ekainaren 25ean Urumea gela (Udaletxea, Ijentea kalea)
Hasiera eta amaiera ordua:	18:00 – 20:30

BERTARATUAK:

LEHENDAKARITZA: Jon Insausti Kultura, Euskarako eta Turismoko zinegotzi ordezkaria

Talde politikoak:

EAJ
PSE
EH Bildu
PP
ELKARREKIN DONOSTIA

Elkarteak, Hiritarrak eta Gizarte-ospe bereziko pertsona edo kolektiboak:

HEZTEN
BAGERA ELKARTEA
BATZEN
BIZARRAIN
San Sebastián SHOPS
LABORAL KUTXA
KUTXABANK
IRUTXULOKO HITZA
AEK

Euskara Zerbitzuko langileak:

Euskara Zerbitzuaren burua
Euskara Zerbitzuko Hirirako Hizkuntza Normalizaziorako Atalburua
Euskara Zerbitzuko Teknikaria, Kontseiluko Idazkaria

EZ DIRA BERTARATU:

GIPUZKOA OSTALARITZA ELKARTEA (ezin etorria adierazi du)

1. 2024ko otsailaren 2ko bileraren akta onartzea

Bileraren akta aho batez onartu da.

Ondoren, bilera deiarekin batera bidalitako deialdiaren aurkezpen laburra egin du lehendakariak.

2. Donostiako Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko VII plangintza aldia (2023-2027 epealdia)

Euskara Zerbitzuaren buruak hartu du hitza eta adierazi du alde zuzeneko kide guztiei bidalitako dokumentazioa erabiliko dela aurkezpen modura eta bertan gai-zerrendaren 2. 3. eta 4. puntuak jasotzen direla.

Gaia testuinguruan jartzeko esan du Donostiako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko maiatzaren 7an onartu zituela Donostiako Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko VII. Plana (2023-2027) eta Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak.

Aipatu Plangintzak eta hizkuntza irizpideek oinarrian dute onartu berri den otsailaren 22ko 19/2024 DEKRETUA Euskal Sektorre Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko. Honen harira, Dekretu honen beritasun nagusiak aipatu ditu labur-labur:

- Sektorre publiko osoa hartzen du bere eraginpean (guztira, 150.000 langile inguru).
- Administrazio publikoren hizkuntza irizpideak sektorre publiko osora zabalduko dira.
- Jaurlaritzak koordinazioa, laguntza eta formazioa eskaintzen die erakunde hauei euskara planak egiteko. Halere, kontuan hartu behar da sektorre publikoko hainbat erakundek badutela euskara plana dagoeneko.
- Hizkuntza-eskakizunak esleitzeko sistema ere aldatzen da. Hizkuntzaren ulermen eta adierazpen gaitasuna izango dira kontuan: irakurmena-idazmena, alde batetik; eta entzumena-mintzazmena, bestetik. Sistema berri honetara egokitu behar dira udal administrazio guztietako lanpostu zerrendak baina horretarako urte beteko epea dago. Donostiako Udalean aurreikusten da lanpostuen egonkortze prozesua amaitzen denean egitea egokitzapen hori.
- Aurrekoez gain, euskara-maila egiaztatzeko bide berriak izango dira: euskarazko gaitasuna egiaztatu ahal izango da bai hautaketa prozesuko azterketak euskaraz eginda eta bai lanpostuan bertan euskaraz lan egiteko gaitasuna egiaztatuz.

Hau azalduta, orain arte Donostiako Udalak euskararen normalizazioan eman dituen urratsak azaldu ditu eta, ondoren, VII. Plangintza aldiaren ezaugarri eta eduki nagusia aurkezteari ekin dio.

VII. Plangintza aldi honetan, Eusko Jaurlaritzak abian jarritako KEMEN metodologia erabiliko da, bi ardatz nagusirekin: kudeaketa eta erabilera. Aurreko plangintzetan zutabe nagusiak zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza ziren. Orain erabilera ardatzaren barruan sailkapen hori egiten jarraitzen da baina, horrekin batera, kudeaketa nabarmendu nahi izan da eta, horren barruan, besteak beste, lidergoa. Beraz, euskararen kudeaketa Udalaren kudeaketa orokorrean txertatu nahi da, zeharkako ikuspegia landu eta lidergoa azpimarratu. Horrekin batera, zerbitzu hizkuntza gisa euskararen erabilera bermatzea, herritarrei kalitatezko zerbitzua eskaintzeko ezinbestekoa izango da eta baita lan hizkuntza gisa espazioak irabazten joatea ere.

Espazio horiek irabazteari dagokionez, arian-arian, Donostiako Udala euskarazko atalak izendatzen ari da, hau da, nagusiki euskaraz lan egiten duten administrazio-atalak dira hauek. Momentuz 14 dira Udalean euskarazko administrazio-atalak, eta plangintzaldian zehar gehiago izendatzen joatea aurreikusten da.

Une honetan, Udaleko zuzendaritza guztiekin bilerak egiten ari da Euskara Zerbitzua, plangintza honetan oinarrituta zuzendaritza bakoitzeko kudeaketa planak egiteko.

3. Donostiako Udalean hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak

Euskara Zerbitzuaren buruak, Donostiako Udalean hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak azaldu ditu kontseiluko ordezkariari bidalitako txostena oinarri hartuta.

Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak Udalaren Euskara Plana garatzeko ezinbesteko gidari eta tresna dira. Udalaren jarduera esparru guztietan (kanpo zein barne komunikazioetan hizkuntza paisaia, administrazio kontratueta...) daude zehaztuta eta hiru helburu nagusi dituzte: herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea, euskararen erabilera normalizatzea eta sustatzea eta Udala euskararen normalizazioan eredu izatea.

19/2024 Dekretuaren 7.artikuluaren xedatutakoaren arabera, hizkuntza irizpideak denboran irauteko tresna bat dira, eta plangintzaldien eta plan estrategikoen iraupenak ez du haien indarraldia baldintzatuko. Beraz, aldaketarik planteatu ezean, VII plangintzaldiaz haratago egongo dira indarrean.

4. Donostiako sektore publikoa osatzen duten erakunde euskara plangintzen planteamendua 19/2024 dekretuaren arabera

Euskara Zerbitzuko zuzendariak, Kontseiluko ordezkariari igorritako txostenean oinarrituta,, 19/2024 Dekretuaren arabera euskara plangintza egin eta hizkuntza-irizpideak planifikatu eta ezarri behar dituzten Donostiako sektore publikoa osatzen duten erakunde nagusienak aipatu ditu:

- Udal sozietate publikoak: Donostia Sustapena, Donostiako Hileta Zerbitzuak (Polloe), Donostiako Tranbia Konpainia (Dbus) eta Donostia Turismoa.
- Enpresa Erakunde Publikoak: Donostia Kultura eta Donostiako Etxegintza
- Erakunde partekatuak: Zinemaldia, Musika Hamabostaldia, Kursaal eta Tabakalera.

Dekretuak 10 urteko epea ematen die egokitzeko baina hauetako erakunde gehienek edo euskara plana eta hizkuntza irizpideak onartuak dituzte edo lanketa aurreratua dute. Beraz, ez da aurreikusten epe hori baliatuko dutenik egokitzapenerako. Jaurlaritzak zenbait prestakuntza saio antolatu ditu erakunde hauentzat eta, horrez gain, behar diren urratsak egiten joateko, Euskara Zerbitzuaren aholkularitza eta laguntza izango dute.

Hiru puntu hauek aurkeztu ondoren, gai-zerrendako gaiekin aurrera egin baino lehen, galderak egiteko eta zalantzak argitzeko tarte zabaldu da.

Gauzak horrela, ELKARREKIN DONOSTIAko ordezkariak hainbat zehaztapen eta galdera egin ditu:

1. Harridura azaldu du VII. Plangintzaldiaren dokumentuan Donostiako Udalari dagokion derrigorrez bete beharreko hizkuntza eskakizunen indizea jasotzen ez delako. Euskara Zerbitzuaren buruak erantzun dio ez dutela beharrezkoa ikusi hori aipatzea plangintza aldiari begira garrantzitsua dena langileen euskararen ezagutza maila delako.
2. Dokumentu berari erreferentzia eginez, esan du 12. orrialdean Udalak herritarrekiko dituen harremanetan ematen den erabilera datuetan ez dela bereizten harremanak ahozkoak edo idatzizkoak diren. Euskara zerbitzuaren buruak esan du datu hori egongo dela, ez dela txostenean zehaztu, baina ziurren ahozkoa izango dela batez besteko handiena.
3. Bestalde, aipatu du Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko azaroaren 19ko 179/2019 DEKRETUAREN 27. artikulua arabera, zerbitzuen datu-base eta erregistroetan pertsona fisikoen edo juridikoen datuak jasotzen direnean, eremu bat egon behar dela, pertsona horietako bakoitzarekin harremanetan jartzeko hizkuntza zein den zehazteko. Datua jasota, komunikazioak hizkuntza horretan egingo direla bermatu behar dela.

Hausnarketa gisa, Elkarrekin Donostiako ordezkariak adierazi du ez dagoela herritarrek administrazioarekiko aukeratzen duten hizkuntza jasotzen duen datu-baserik.

Euskara Zerbitzuaren buruak esan dio, oraingoz, herritarra ahoz, euskaraz zuzentzen bada, administrazioak euskaraz artatzen duela, eta gaztelaniaz zuzentzen bada, gaztelaniaz; idatziz, herritarra euskaraz zuzentzen bada, euskaraz; eta gaztelaniaz zuzentzen bada, gaztelaniaz eta euskaraz.

4. Halaber, gaineratu du hizkuntza-eskakizunak esleitzeko sistemari dagokionez dekretuak hizkuntza-eskakizunen sistema aldatzea proposatzen du. Hizkuntzaren ulermen eta adierazpen gaitasunaren arabera banakatuko dira: irakurmena-idazmena, alde batetik; eta entzumenamintzamina, bestetik. Honek ahalbidetuko du erakunde bakoitzaren errealitatera egokitzea eta euskararen normalizazio prozesua egin ahal izatea. Lanpostu jakin bateko ahozko eta idatzizko eginkizunak oso desorekatuta daudenean, hizkuntz eskakizun asimetrikoa jar daiteke bi maila nahasiz. Edonola ere, Dekretu honek ez du ezartzen zenbat ezta zein mailatako hizkuntza eskakizunak eskatu behar zaizkien langileei. Gai hau erakunde bakoitzaren esku geratzen da.

5. Era berean, hizkuntza eskakizunak lan poltsetan sartzeko beharra azpimarratu du Elkarrekin Donostiako ordezkariak; baita kontratazio publikoko prozeduretan ere. Euskal sektore publikoko erakundeek egindako kontratazio publikoko prozedurak gauzatzen direnean herritarren hizkuntza eskubideei eta euskararen eta gaztelaniaren hizkuntza ofizialtasunaren erregulazioa betetzeari dagokionez trabarik egon ez dadin, kontratazio organoek kasu bakoitzean beharrezkoak diren klausulak jasoko dituzte, betiere kontratuaren xedea hizkuntza normalizazioaren arloan aplikatu beharreko araudira egokitzen bada, 19/2024 Dekretuaren 13.1 a) artikulua arabera.

Jarraian, San Sebastian Shops-eko ordezkariak galdetu du ea Elkarrekin Donostiako ordezkariak aipatutako guztiak plangintzan sartuko diren ala hausnarketa bat diren. Euskara Zerbitzuaren buruak esan du VII plangintza onartua dagoela eta ez dela aurreikusten aldaketa horiek sartzea. EAJko ordezkariak esan du ea profil asimetrikoak sartzeko hasiko diren lanpostuen katalogoan eta Euskara Zerbitzuaren buruak erantzun dio udala egonkortze prozesu batean murgilduta dagoela eta prozesu hau amaitzean hasiko direla egokitzapenarekin. Edozein kasutan, esan du, orain arte esleituta dauden hizkuntza eskakizun guztiak lanpostu bakoitzaren funtzioen arabera ezarriak daudela eta, oro har, ez dela aldaketa handirik aurreikusten trebetasun hartzaileen eta ekoizleen araberrako egokitzapena egiteaz haratago.

BATZENeko ordezkariak euskarazko unitate administratiboen atalari buruz galdetu du eta EAJko ordezkariak esan du, Udalak 5-6 sekzio zituela lehen, eta gaur egun 14 izatea aurrerapauso handia iruditzen zaiola.

Ildo horretan, Euskara Zerbitzuko buruak lidergoaren garrantzia azpimarratu du, zuzendariek eta ordezkari politikoek euskara erabiltzeko duten joerak horretan eragina izan duelako.

5. Euskaraz // egitasmoa (azken bisiten ondorengo egoera Donostian)

Ekimenaren inguruan Euskara Zerbitzuko hiriko hizkuntza normalkuntzarako ataleko buruak eman dituen azalpen eta xehetasun guztiak bileraren aurretik kide guztiei bidalitako dokumentazioan daude jasota.

2022ko udazkenean jarri zuten martxan Euskaraz barra-barra egitasmoa Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Euskararen Erakunde Publikoak. Kanpainaren helburua da bezero euskaldunei adieraztea euskaraz egiteko aukera dutela e// ikurra sarreran itsatsita duten merkataritzako eta ostalaritzako establezimenduetan.

Gaur egun, Euskal Herriko 150 bat udalerrri ari dira bultzatzen e// marka bateratua eta Donostiak du egitasmoa atxikitako establezimendu gehien: 1.456 establezimendu, hain zuzen.

2022ko udazkenetik hona, Udaleko Euskara Zerbitzuak 2.701 establezimendu bisitatu ditu eta horietatik %54k (1.456 establezimendu) bat egin dute *Euskaraz barra-barra* egitasmoarekin. Aurtengo udazkenean establezimenduak bisitatzen jarraituko du.

Auzoka, egitasmora atxikitako establezimendu gehien Grosen (233 establezimendu, guztizkoaren %16) eta Amara Berrin (218 establezimendu, %14,9) daude; eta sektoreka berriz, merkataritza sektorean (% 53).

Egitasmora atxikitako Donostiako establezimenduetan, 5.916 langile ari dira jendaurrean, eta horietatik %88,1ek du euskaraz ulertzeko gaitasuna: 3.885ek (%65,7) euskaraz hitz egiteko gaitasuna dute eta 1.325ek (%22,4) euskaraz ongi ulertzen dute, nahiz eta ez hitz egin. Hortaz, egitasmoan parte hartzeko ulermenaren baldintza ondo betetzen dute.

Donostiako establezimendu batek egitasmoan parte hartzeko bi baldintza bete behar ditu: lehena da jendaurreko langileek euskaraz ulertzea. Hala, 2 eta 10 langile arteko establezimenduetan, gutxienez langileen erdiek (%50) ulertu behar dute euskaraz, une oro; eta 11 langiletik gorako establezimenduetan, berriz, gutxienez langileen % 30ek ulertu behar du, une oro. Eta bete beharreko bigarren baldintza da bezeroari lehen hitza euskaraz egitea.

Hiriko establezimenduek izango dute onurarik egitasmoari esker, bezero euskaldunei zerbitzu hobea eskaini eta fidelizatu egingo baitituzte. Izan ere, kontuan hartu behar da Donostiako establezimenduetako bezero gehienak gipuzkoarrak direla, donostiarrak barne.

Egitasmoari ikusgarritasuna emateko asmoz, e// ikurra duten telazko 5.000 poltsa banatu ditu Udalak egitasmora atxikitako establezimenduen artean, bezero euskaldunei opari edo sari gisa emateko. Ekainaren bigarren hamabostaldian egingo da banaketa aldeztu aurretik eskaera egin duten establezimenduetan.

EHBilduko ordezkariak Donostiako establezimendu kopuruaren inguruan galdetu du. Shops-Donostiaren ordezkariak aipatu du 4000-5000 denda artean daudela, eta azpimarratu du komunikabideetan ikusgarritasuna ematea, marka berpiztea eta sektorean marka oso positiboa izan dela.

BATZENeko ordezkariak ekimenari buruz Euskadi mailan daturik ba ote dagoen galdetu du, Eusko Jaurlaritzaren e// webgunean ekimenarekin bat egin duten 150 herriei buruz agertzen dela argitu diote. Gainera, erakunde pribatuen jardueran eta kudeaketan euskarak duen garapen-maila aitortzeko sistemaren barruan sartu du e// ikurra Eusko Jaurlaritzak eta, horri esker, e// egitasmoarekin bat eginda dauden establezimenduek Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza deialdietan laguntza handiagoa eskuratu ahal izango dute.

6. Udako jarduerak: Oporretan Euskaraz, Aisikasi, Udan Haurrak Mintzajolasean, 16-18 urteko gazteentzako euskara ikastaroak

Hiriko hizkuntza normalkuntzarako atalaren buruak, Euskara Zerbitzuak antolatutako udako jardueren berri eman die Kontseiluko kideei eta ekimen bakoitza zertan datzan azaldu du:

1. Oporretan Euskaraz: udaleku irekiak euskararen erabilera sustatzeko.
2. Aisikasi eta Udan Haurrak Mintzajolasean: ikastetxeekin elkarlanean landutako udaleku trinkoak, batez ere ahozotasuna lantzeko gaitasun gutxi daukaten haurrentzat, etorri berrientzat. 200 haur eta gazte daude izena emanda eta uztailaren 3an hasiko dira.
3. 16-18 urteko gazteentzako euskara ikastaroak: hiriko euskaltegiekin elkarlanean, 16-18 urteko euskaraz gaitasun gutxi duten gazteentzako euskara klaseak.

Puntu honetan PPko ordezkariak hitz egin du, 16 urte baino gutxiago dituzten gaztetxoentzako ikastaroak HABEk ez homologatzearen gaiaz. Ez dagoela ikastaroen eskaintzarik DBH3-DBH4 ikasten duten neska-mutilentzat.

Euskara zerbitzuburuak azpimarratu du ikastaro horiek aisialdiarekin lotuta daudela, batez ere etorri berrientzat.

BAGERA elkarteko ordezkariak berretsi du adin tarte horretan ez dagoela gazteentzako ikastaroen eskaintzarik, eta adin horretan euskara maila baxua duten gazteak erakartzeko ekintzak egin beharko liratekeela. 2025eko aurrekontuari begira, horri buruzko zerbait antolatzea pentsatu beharko litzatekeela gaineratu du.

7. Norberak lekarkeena

BATZENeko ordezkariak esan du Gazte antzerki topaketaren sari banaketa gaztelaniaz izan zela eta arraroa dela Gazteria Sailak antolatua izanik.

Harridura agertu dute Euskara Zerbitzuko ordezkariak eta argituko dutela esan dute.

Azkenik, Batzeneko ordezkariak berriro aipatu du aurreko Kontseiluko bileran azaldutakoa Urgu-lleko lorategietako karteiei buruz: bigarren tokian euskaraz idatzitakoa agertzen da, gaztelaniazkoaren ondoren; eta aipatu zuen arren, ez da zuzendu eta Kontseiluaren bileran erakusteko jaso ditu.

Bertaratutakoek adierazitakoarekin, bilera amaitutzat eman da 20:30ean.